

*Desira ekoiztea. Ez du ezer esan nahi, baina funtzionatzen du*  
Fernando Illana

«Beti ekoizpena ekoiztearen araua, ekoiztea ekoizkinari eranstearena, makina desiratzailen edo oinarrizko ekoizpenaren ezaugarria da: ekoizpena ekoiztea.»

Gilles Deleuze / Félix Guattari. *El Anti-Edipo. Capitalismo y esquizofrenia*, (16. or.) 1985, Ediciones Paidós. Bartzelona (gaztelaniatik itzulia).

«Makina desiratzailak ez dira mamuzko edo ametsezko makinak, makina tekniko eta sozialetatik bereiziko lirakeenak eta haien bikoiztuko lituzketenak. Mamuak, aitzitik, bigarren mailako adierazpenak dira, bi makina moten identitatetik datozenak, inguru jakin batean.»

Gilles Deleuze / Félix Guattari. *El Anti-Edipo. Capitalismo y esquizofrenia*, (37. or.) 1985, Ediciones Paidós. Bartzelona (gaztelaniatik itzulia).

«Ez zaituzte ikaratu. "aitorpena ez da ezer, ezagutza dena da". Hau aipamen bat da, baina ez dut argituko nori esan zuen.»

Susan Sontag. «Proyecto para un viaje a China», *YO, etcétera*, (14. or.), 1997. Taurus. Madril.

] ... [

«Erakusketa»<sup>1</sup> baten argitalpenerako testu bat idaztea onartzen den unean azazo batzuk sortzen dira, eta haien konplexutasuna zalantza dantza batean adierazten da, nahi izan ala ez, testua bera baldin-

---

1 Hemen aipatu behar dut arrunta egin dela erakusketaren egitea gertakizunaren, gertakariaren ikuspuntutik adjektibatzea, agian «erakusketa» hitzak merkatuaren aurreiritzia erantsita daramalako, ez nahitaez, hala ere; baina puntu hori ez dator bat testu honen joerarekin, nire asmoa baita «erakusketa/gertakizun»-en, museoaren «makina»-ren eta artxiboa-ren artean pentsa daitezkeen harremanei buruzko gogoeta batzuk egiteko bidea ematea.

tzatzen duena. Lehenik eta behin agerian uzten du, ezustekorik izan ezean, epe laburrean gertatuko den baina nolakoa izango den ez dakigun zerbaiti buruz idazteak berekin dakarren ezinegona.<sup>2</sup> Ezin da jakin; gertatu eta gero ere ez da jakingo. Hori dakigu, eta horrek berak baimena ematen digu *a posteriori* esateko: «orain badakigu ikusi, entzun, sentitu, hitz egin... dugula».

Horrela bada, «oraingo» begirada batetik ikusi, entzun, ukitu, sentitu edo esango den zerbaiti buruz idazteko saioak zabalik uzten ditu haren gertagarritasunari buruzko gogoeta batzuk;<sup>3</sup> izan ere, objektua denbora hurbil batean kokatzean, pauso bat aurrera emateko gonbidapena egiten du, hartara «gertatutakotik» begiratzeko, eta horrek susmarazten du orainean begiratzea ezin dela artxiboko ideien batetik baizik egin. Orainak ez dauka denborarekin zerikusirik, ekintzarekin bai, ordea. Orainak ez dauka denborarik, espazioa besterik ez: are gehiago, «deleuziar» doinuz esateko, espaziotik eratorzen da denbora.

Zer jasoko da orduan, zer ikusi ahal izango da? Gauza onartua da ezin dela jakin, egia, esan dugu; baina ezintasun horretatik pentsa daiteke gogoan daukagun gertakizun eragilearen egitura –era-

---

2 Etorkizuna atzo izan zela onartu duten demokrazia liberal eta merkatu libreko gizarteek ikus-entzunezko artxiborako eremu performatibo gisa zabaltzen dute museo garaikidearen eremua. Ekintza bere mugatutasunean kontsumitzen de lekuan *izana, ikusia, lekuko izana* edo *sentitua*-ren izaera narratiboa besterik ez da gertatzen. Egoera horrek, *Cultural Studies* direlakoan oso hurbilak, TICen garapenari atxikitako informazioaren eta artxiboaren inperialismoaren alde argudiatzen du.

3 Oraina kudeatzea «gertatutakoa» fikziozkoa ez den idazkera-gorputz batean finkatzeko ezintasuna aitortzea da, lehendabizi, erretinan irarritako bat-bateko hautemateen (irudien) errealitatearekiko kontrastean. Nola edo hala, puntu horrek argitzen du jarioari, aireari, isurkariari, aparrei eta abarrei buruzko metaforen ugartasunaren zergatia, milurtekoaren hurbiltasunean argitaratutakoan hain agerian dagoen materiaren galeradun prozesuen ugaltzea erakusten dutenak.

tzaile?–aren deskribapen, gutxi edo aski zehatz bat egitea: aldi batzuetan eta besteetan (edo ez) egileak burututako elementuen (pieza-objektuak, testuak, diagramak, dokumentuak...) «multzo elkarrekin lotu» baten ordenamendu zehatz eta jakin bat, jendearen aurrean «erakusketa» (hau susmo bat da) formatuan jarriak, seguru asko instalazio moduan, esparru instituzional (publiko), espezializatu batean kokatuak, eta adierazgarriena: museoko erakusketen aldi baterako programan erregistratua eta inskribatua.

Dudarik gabe, deskribapen hori luza zitekeen, baina hori egiteko tokia urria izateaz gainera, ez lioke gauza handirik erantsiko deskribapenaren beraren beharrari. Egia da ez dela desadostasun handirik espero esatean deskribapenak jasotzen duena ez dela gertatuko dena, eta ezta ikusi, entzun, ukitu edo sentituko dena ere... deskribapen bat behar da, diagrama bat behar den bezala, are gehiago gertakizunari artxiboaren ideiatik begiratzen bazaio, eta hori da testu honen asmoa.<sup>4</sup> Kontzeptu hau bi modu elkarren artean oso desberdinei zabaltzen zaie, gutxienez: historiaren hautemateari eta bilakaerari. Egindako deskribapenean bi aukerak jasotzen dira; alde batetik, egileak eta/edo komisarioak ekarritako «elkarrekin lotutako multzo»-aren hasierako ordena dago eta, bestetik, inskripzioarene ta erregistroaren eremua, ikusgaitasuna sortzera mugatzen ez den museo-makina, aitzitik zer gorde beharden eta zer ez erabakitzen duena. Argi-ekoizpen hau estatu-nazioak ondarearentzako aurreikusi duen atzealdearen –nazio-identitatea eta haren hilezkortasun-historia– gainean gertatzen da.

Michel Foucault-ek jarri du interes handiena itxitegi-erakunde handien eta artxiboaren teknologiaren arteko harremanean, subirano-

---

4 XXI. mendeari dagokion problematika honetara hurbiltzeko ondoko liburua kontsulta daiteke: Andrés Maximiliano Tello: *Anarchivismo. Tecnologías políticas del archivo*. Ediciones La Cebra, 2018, Buenos Aires.

tasun-gizarteak diziplinazko gizarte izatera nola igarotzen diren kontatuz, eta horietatik kontrolekoetara. Baina Gilles Deleuzek utzi du idatzita, ondoko eran:

Erraza da gizarte moten eta makina moten artean egokitasunak bilatzea, ez makinak erabakigarriak direlako, baizik eta haiek sortu dituzten eta erabiltzen dituzten gizarte-eraketak adierazten dituztelako. Antzinako subiranotasun-gizarteak makina sinpleak, palankak, poleak, eta erlojuak erabiltzen zituzten; ondoren etorri ziren diziplinazko gizarteak makina energetikoz hornitu ziren, entropiaren arrisku pasiboarekin eta sabotajearen arrisku aktiboarekin; kontroleko gizarteak hirugarren mota bateko makinaren bidez jarduten dira, makina informatikoen eta ordenagailuen bidez, zeinaren arrisku pasiboa interferentziak baitira, eta arrisku aktiboa, berriz, lapurreta eta birusen inokulazioa. Ez da bilakaera teknologiko bat bakarrik, kapitalismoaren aldaketa sakon bat da.<sup>5</sup>

Esan ohi den bezala, eraketa historiko oro ikusgaitasun erregimen baten eta adierazpen erregimen baten arabera definitu badaiteke, zein da oraingo ikusgaitasun erregimena? Zeintzuk dira pilatze infinituko kapitalismoaren adierazpenak? Gorago «oraingo begirada» bat erabili da etorkizun hurbil batean ezinbestean gertatuko den gertakizun batez aritzeko, bina orain, kontroleko gizarte (konektuetan) kontua da zein subjektu den oraineko subjektua, ez baitako

5 Gilles Deleuze. *Conversaciones*. En *Post-scriptum sobre las sociedades del control*. 282. Or. Ed. Pre-Textos, 1999, Valentzia. Diruaren metaketa infinituan oinarria duen kapitalismo finantzarioak pentsa daitezkeen mundu guztien kanpo aldea da.

subjekturik, subjektibatze prozesuak baizik,<sup>6</sup> edota, beste era batera esanda, nor etiko eta estetikoaren ekoizpena dago, subjektibatze moralaren kaltetan, Foucault-ek bezala esateko jakintzan eta bosterean parte hartzen dutenak.

] ... [

Badakigu gauza asko egiteko gai garen subjektuak garela, eta denbora asko igaro dela subjektu modernoaren pixkanakako gain-behera hasi zenetik –askotan aipatua, singularreko lehen pertsonan lotura bat pentsatzeak dakartzan zailtasunengatik. Gai horren problematikaren arrastoak aurki daitezke oraindik ere eguneroko bizitzaren igarotze trinko eta lodian, nahiz eta gizarte-komunikazioan gaurkotasuna galdu izan. Agian hau ez da hari horri tira egiteko tokia; litekeena da, baina aipatu egin nahi dut, koloka bada ere, Meanaren sortze-prozesua kokatzeko, Marxen Manifestu komunista liburuko aipamen hain erabiliarekin lotua: «Solidoa den oro airean desegiten da, sakratua den oro profanatua da eta gizakiak, azkenean, beren bizi-baldintzak eta elkarren arteko harremanak patxadaz hausnartzera behartuta ikusten dute beren burua»<sup>7</sup>.

Hori esan ondoren eta, Meanaren erakusketa-proposamenarekiko litezkeen hurbilketen atariko gisa, esan beharra dut hasieratik eza-

6 Gilles Deleuze. *La subjetivación. Curso sobre Foucault*. III. alea. Editorial Cactus, 2017, Buenos Aires.

7 Marshall Berman, *Todo lo sólido se desvanece en el aire, La experiencia de la modernidad*. (83. or.). Siglo XXI, Madril, 1991. Liburuaren izenburuak gogora dakarren irudiak Karl Marx-en «gizarte burges modernoaren deskribapen» bat du aipagai, harrigarri samarra gertatzen dena errealitate modernoaren definitzeko lausotasuna erabiltzeagatik.

gutzen dudala haren lana, neurri handi batean Trayecto Galeriaren barruan garatu baitu, eta horrek urte hauetan zehar burututako lanaren lekuko zuzena izateko aukera eman dit. Hasieran, epe labur batez, margolaritzan interesatuta egonda gero, irudikapena eta haren problematikak bertan behera utzi eta eskulturaren, objektuen, instalazioaren, argazkigintzaren, bideoaren eta performancearen esparruan kokatu zen. Irekiera hori ez da, nahitaez, diziplinen arteko edo diziplina askoren eremu gisa ulertu behar, aitzitik, eskura daude baliabide estetikoek zerrenda gisa ulertu behar da, besterik gabe. Hortik abiatuta eremu bat sor daiteke «egin-pentsatu»-ren arteko bereizketarik eza erakusteko eta testuinguru (askotariko)an koka daiteke, ekintza posibleen definizioetako beste elementu baten gisara. Horrela ulertzen da nola iritsi den idazketara, bere ibilbide osoan garrantzi handia izan duen egitatera..

Egin dezagun tarte txiki bat Meanak Artiumeko bakarkako erakusketari honetarako pentsatu duen izenburuari heltzeko: *NOS[YO]OTROS*. Berehala antzematen zaio ikusia izateko izenburu bat dela irakurria izateko baino. Haren lanetan kultur identitatearen problematikak izan duen eta duen garrantzia azpimarratzeaz gainera,<sup>8</sup> izenburua osatzen duten elementu batzuen eta besteen izaera linguistikoan oinarritu ordez irudi bat nahiago izateak adierazten du elementu bakoitza ezin dela bere aldetik irakurri, irudian barne hartzen dituen harremanetik kanpo. Beraz, irudi-izenburuak, egilearen gonbidapena iradokitzen du eskura dugun «Ni»-aren ideia-aren inguruan pentsatzera edo berriz pentsatzera, askotarikotasun testuinguru

8 François Jullien. *La identidad cultural no existe*. (9. or.). Ed. Taurus, 2017, Bartzelona. Itzulpenari buruzko oharrean Pablo Cuartas-ek dio: «François Jullien-en lehendabiziko keinu filosofikoa bere hizkuntzan arrotz bihurtzea da, eta keinu horren xedea, eguneroko hizkeran denborak eta ohiturak ilundutako zentzuak berreskuratzea». Egokia dirudi aipatzea antzekotasun handia dagoela «bere hizkuntzan arrotz bihurtze» horren eta Meanak bere lan artistikoan eta idatzietan dituen jarrearen artean.

batean, orainaldi ez-baztertzailer batean. Baina agian baliabide bat da erakutsiko diren piezak –laurogeita hamarreko hamarkadatik hasi eta gaur egunera artekoak–<sup>9</sup> inskribatzen diren lan/bizi testuingurura hurbilazteko.

Egia da identitatea arazo gisa ez zaiola arrotz nire artista jardunari, baina Meanak osatutako izenburuan hartu duen tankera suspergarria gertatzen da. Izenburuak *Yo 'ni'* bat dauka, *Nosotros 'gu'* baten erdian sartua/*écart*<sup>10</sup>, bitan banatuz: *nos 'gu'* / *otros 'besteak'*. *Nosotros 'gu'* pluralak, gehienetan, eragiketa bikoitz bat du bere baitan; alde batetik barne-hartzailea da eta, bestetik, baztertzailer, norbere buruaren zati bat –*otros 'besteak'* plurala, *Yo* ez direnak– kanpora bidaltzen duen bere baitako ixte bat da. Hartara ikus daiteke *Nosotros* plural aizun bat dela, denak adierazten baitu «taldearen batasunean» giltzapetutako plural bat dela, zeinaren elementuak homogeneousazio prozesu baten azpian baitaude. Ez dago pluraltasunik *Nosotros*-en, talde-homogeneotasun arbitrarioa baizik. Ez dago berez identitatearik, kultur identitatea ezinezkoa egiten duen lerradura-prozesu bat baizik, beldurrak edo zaurkortasunak identitate-aldarrikapena xaxatu arren eta globalizazio prozesuen aurrean nazionalismoen itzulera berekin ekarri arren.

9 Milurtekoaren aldaketa oso gai erabilia izan zen hamarkada horretan, mundu berri batekin parekatuz: zerbaitek izateari utziko dio 1999 urtean eta beste zerbaitek hasiko da 2000.ean. Baudrillard-ek, ordea, dio «hamarkada egutegitik ezabatuta ere ez litzateke ezer gertatuko».

10 *Op. cit.* Hirugarren kapitulua, *Diferencia o Écart: identidad o fecundidad* (43. or.). *Écart* François Jullien –ek sustatzen duen hitz bat da kulturen arteko «desberdintasun»-era jo gabe haien arteko aldearen berri emateko. «Biek bereizketa bat markatzen dute; baina *desberdintasunak* bereiztearen ikuspuntutik egiten du eta *écart*-ek, berriz, distantziaren ikuspuntutik».

] ... [

«Behar egoera» terminoak tokia egin du solasaldi globalean, aurrebidera bideratutako gizarteek (mendebaldekoek), kritikarik gabe, hauta daitekeen guztia aldaketa edo katastrofea dela onartu duten une batean kalteberatasun noziora hurbiltzea bilatuz. Planteamendu horrek adierazten du zentzuzkoa ez dela «katastrofe» aukeratzea, eta beraz, pentsa daiteke arrazoizko aukera eta aukera bakarra, nahitaez, «aldaketa» dela; oraingo honetan, paradigma-aldaketa garapen ekonomiko iraunkor baterako. Demokrazia liberalen nagusitasun-ordenatik kudeatutako herrialde horiek osatzen dituzten pertsonen ongi-izatea, zoriona bilatzen ez duten aldaketa paradigmatico sare baten dardaran aurkitzen gara horrela.

Liberalen nagusitasun horri dagokionez, gogoan izan behar da paradigma-aldaketa dinamika bizi baten erdian dagoen arren –batzuek gogoko dute zibilizazio-aldaketa gisa izendatzea–, aldaketa horiek ez datozela ideologia, erlijio-sineste, epistemologia edo mundu-ikuskeraren arabera elkartutako herritar-taldeetatik, modernotasun jarrera batetik pentsatzea posible zen eran. Lehendabiziko aldiz, eta hori da haren berezitasuna, norbanakoak ez dira jada gizarte aldaketaren adierazpena, katastrofe egoeraren ebaluazioa baita orain garrantzitsuena. Lehendabiziko aldiz, «talde» ekonomikoek, politikoek, epistemologikoek eta abarrek antolatzen dute «mundu bat», eta, iraunkor gisa aldarrikatzen den mundu hori dinamizatzen duten paradigma berri horien eraginez iritsitako hauskortasun mailaren arabera adierazten dira norbanakoak.<sup>11</sup> Bizitza egokitu zaigun

11 Nahikoa da garapen irakunkorraren definizioa irakurtzea [www.unesco.org-en](http://www.unesco.org-en) ohartzeko iraunkortasunaren kontzeptua bide ezkorretik sortu dela, «planetaren larrialdi» gisa. E. Morin-ek testu askotan aldarrikatu du –utopia modernoak bertan behera uztearen aurrean– komenigarria litzatekeela gizarte- eta kultura-helburuak

denboraren harrabotsean, subjektua «kaltetu» bihurtu da, eta beraz, esan daiteke beharren kudeaketaren emaitza dela, hots, subjektu garaikidea arnasa hartzeaz kezkatuta dagoena da, bizi-nahi gisa ulertua, López Petit-ekin batera esatearren.<sup>12</sup>

Trayecto Galerian *Incursiones#Excursiones* izeneko proiektu bat programatu zen –Juan Carlos Meanaren parte-hartzearekin– alde fisikoaren eta alde psikikoaren arteko harreman beti gatazkatsuari –eta batzuetan kontrajarriari– erantzunen bat emateko asmoz. Subjektibotasunaren (eta, beraz, subjektuaren) egoerari buruzko galdera bat, edozein metafisika pentsagarri gainditzearen inguruan antolatzen den gizarte batean. Zerk eusten gaitu, beraz, gaur egun? Subjektuaz mintzatzen saiatzen garenean, norabideren batean hausnartzera bultzatzen gaituen lehen gogoeta haren eraistearen gertaerara berera bideratzen gaituena da. Baina une batez «gorputz» horren forentse bihurtuko bagina, Foucaultekin batera ohartuko ginatke heriotza horren arrazoi nagusia subjektibotasunaren pixkakanako desaktibazio edo neutralizazioa dela ekintza-prozesu batzuetan eta besteetan, edota naturaren ideia baten alde, ezagutzaren iturri bakar gisa, edota botere-harremanen inguruko analisisien alde, gizartearena den ororen oinarri gisa.

Litekeena da oso, harrera egin digun munduaz ari garela uste dugunean boterearen eta haren estrategien kontzeptualizazioen bidez, edota sistemaren egoeren neurketetan elkarreragin psikofisikoei garrantzi gutxi ematen diegunean subjektibotasunaren estatusa

berriz definitzea kontzientzia berri batez hornitzeko eta horretarako pentsaeraren erreforma baten deia egiten zuen. J. Rancière-k, bestalde, dio agindutakoa etengabe ez betetzean laburbiltzen dela XX. mendetik XX.era irarotzea eta, beraz, pentsa genezakeela –Ulrich Beck-ekin batera– arrisku-gizarteetan bizi garela.

12 Santiago López Petit. *Entre el ser y el poder. Una apuesta por el querer vivir*. Siglo XXI Editores, 1994.

zabarki alboratzen aritzea errealitatearen egituran, eta horrekin, ekintzaren logikan erantzukizunaren etika bat (Jonas) finkatzeko beharrari atea kolpez ixtea. Bizi garen egun hauetan zaila gertatzen da, dauzkagun datuekin, erantzukizun hori gogora ez ekartzea. Gogoeta horietan dabilen pentsamendu bat alde subjektiboaren egoera analizatzen saiatukoa da sorkuntza garaikidearen eremuan, jakinik horrek barruko/kanpokotik, osasuntsu/gaixotik, indartsu/ahuletik eta abarretik harago joatea esan nahi duela. Pentsamendu horrek ondoko galdera kontraesankor eta, aldi berean, egokiari begiratzen dio: zer da objektiboki subjektibitatea sortze-prozesuetan? Subjektibitatea bada, dudarik gabe; hori argi eta garbi adierazten du erakusketaren izenburuak, baina, zein da haren estatusa ekintzazko «apriori»-en ebaluaketan?

] ... [

Amaitzeko, nondik dirudi ari zaigula hizketan Juan Carlos Meana? G. Wilches-Chaux-i hartutako hitz simple eta biribiletan esateko, «paradigmen eta mundu-ikuskeren krisi batetik eta, aldi berean, krisi ekologiko eta humanitario txit larri batetik». Hau da, orainaldi betean taxututako errealitatea pentsatzeko beste modu batzuk esploratuko dituzten gogoeta ildoak ahalbidetuko dituzten era askotako irakurketak bultzatzen dituen egoera kritiko batetik –hori egingarria balitz– «ezagutza kokatu, mugakoa» berreskuratzeko modu gisa,<sup>13</sup> zeinak egoerazko probabilitate baten gainean garatuz jarduteko dinamikaren zentzua/zentzugabekeria bikotea kanporatuko lukeena.

---

13 Donna J. Haraway. *Ciencia, cyborgs y mujeres. La invención de la naturaleza*. (7. kap., 313. or.), 1995, Cátedra arg., Madril.